## Guantanamera

Joseito Fernandez / Hertzainak

Guantánamo tiene un son sobre su piel duradera
que gira por caimanera con su ritmo juguetón
caimanera es la razón, que palabra impresionante
por la base americana que es una mancha importante.

No se duerme caimanera sobre la noche antillana
Ella vela soberana con la luz de su bandera
caimanera es la primera herida por sus costados
la de brazos desangrados, la de héroes caimaneses
la que ha visto tantas veces sus hijos asesinados.

Caimanera es la frontera, es la primera avanzada
la mano firme y armada ante el rostro de la fiera
guajira guantanamera, caimanera siempre y erguida
dispuesta a entregar la vida por la causa que defiende
te aplaude quien te comprende, guantanemera querida.

Guantanamera, guajira guantanamera...

Guantanamon son bat dago azal zail horren gainean
caimaneran jiran dabilena jolas pilpiragarrian
caimanera da arrazoia, horra hor hitz itzela!
Caimanera militante goizero ahalegintzen dena
amerikar basea dela eta orbain nagusiaren aurka.

Caimanera ez dago lo Antilletako gauetan
zelatan dago, nagusi bere banderaren argitan
caimanera da lehena zauriturik saihetsetan
odol hustutako besoena caimandar heroiena
seme-alabak asesinaturik hainbestetan ikusi dituena.

Caimaneran dago muga aintzinako abantzuon
esku tinko armaturik basapiztiaren aurrean
guajira guantanamera caimanera beti zutik
bizitza emateko prest bere arrazoiaren alde
eta ulertzen zaituenak txalo dagizu, guantana-era maite

Guantanamera, guajira guantanamera...




Eskerrak zinez, esku zabalik eskainitako laguntzagatik



## Arrautza bat pinu batean

Karra / Josu Zabala

Gaurko paseoan
arrautza bat pinu batean
txorakeria bat dirudi
bainan guztiz egia da
pinura igo
arrautza begira
Sarjentu baten arrautza
okupazio ejerzitoaren
sello ta guzti darama
ta esaten diot nik
neure buruari
parakaidistaren batek galdu du hori
heroia ala eroa, biak seguraski
hainbeste pinudi eta abioitik jaurti
jarraitzen dut paseatzen
pinu asko dago, bai,
baina zoritxarrez
beste arrautzarik ez
pinuz potrotaino
eta militarrez nola esan?
Haiek pinuak hona ekarri
ta orain bere arrautza ustelak utzi
hobeto genuke hartu ta pinuekin, guztiak
kanpora bialtzera hemendik
baina heroi bat izan nahi baduzu,
hobe ipurdian tiro bat, bota ezazu
hau orgasmoa
eta beharbada egunen batean
Euskadi izango da libre ta tropikala
militarrik gabe, buruaren jabe edo
zergatik ez buru gabe hobe?
Beltzak eta alfer bihurtuko gara
kooperatibak ere itxi behar eta
leku guztietatik deskomekatuak
libre egiteko edozein pekatu
euskal txokoetan platerik onena
Bermeoko iguana pil-pilean
arratsalde osoa siesta batean
porrusaldak, rona, whisky eta izotza
ta nekazariek landuko dituzte
kokoteroak pinuen ordez
eta arrantzaleek kontrabandora ta pirateriara
pasatuko dira
eta bukatzeko Gernikako arbola
palmera lirain bat bihurtuko da, eh!
Euskaldun guztiok ibiliko gara
ipurdia mugitzen bermudetan
hau astakeria.

## Yankee go home

Bittor Kapanaga / Josu Zabala

Maite dugu gure herria
ta askatasun eguzkia
itzal egiten digu horrek baina
baina kantua dugu alaia.

Yankee kanpora
hoa etxera yankee go home
hoa hemendik yankee utzi pakean
fuera el yankee, libro gaitian behin betiko.

Yankeetzar hori - hemen gure garraxia
entzun ezak - geurea diagu herria
ta onen alde - ezartzen diagu bizia
galtzekotan - galdu dadila hirea.

Yankee kanpora...

Elkartu gaiten - gure artean lehenbizi
besteen menpe - ezin diagu inola bizi
gure etxean - gure etxean gu nagusi
ta beharbada - piztiari burua hautsi.

Yankee kanpora...

Asko maite zaitut baina ezin zaitut ikusi
zerura joan nintzen eta han ere txakurrak biluzik
jeneral batek kanoi tubotik,
ni ondo nago eta zoazte aurretik
Kalifornian dago "Lorentxo" oporretan danok
hobeki.

Yankee kanpora...

Hankapalo pirata gaiztoa
badator eta ni banoa.

## Infernuko atean

Josu Zabala

Adi, dardaraz nago ate aurrean
jotzen, whiskyz guztiz herdoildurik
deitzen, hau da zigorrik latzena
iragan diren azken ordu hauek
haluzinazioa ote
mundua oraindik hor dagoela ahal gogoratu
neska politak ikusi
edozein bezala nabilela pentsa, baina orain
infernua berriz, nire infernua berriz.
Orain berriz zer gehiago esango dut, ondo nago
lauza honen azpian
askotan astunegia dela pentsatzen dut
ta ezin dudala gehiago
amets ederrak egiteko ere gogorik ez.
Hemen bakarrik nago zuloan
oihukatzen, ezerezaren barnetik
nahiez, edozein leku non gerta
ezer, merezi duenik konta.



**Arrautza bat pinu batean**

En el paseo de hoy he visto un huevo en un pino/parece una chorrada pero es la pura verdad./Subo al pino miro al huevo/y son los cojones de un sargento/con el sello del ejercito de ocupación/pienso para mi:/Algun paracaidista lo habra dejado ahi/heroe o loco, seguramente las dos cosas/tanto pinar y tirarse del avión.../sigo paseando, hay muchos pinos/pero por desgracia no hay mas huevos/estamos de pinos hasta los cojones /¿y de los militares?/Estamos de pinos hasta los cojones/y de los militares como decirlo.../ellos antes trajeron aqui los pinos/y ahora dejan sus huevos podridos colgando/sería mejor echarlos de aqui con pinos y todo;/pero si quieres ser un heroe/es mejor que te pegues un tiro en el culo/vaya orgasmo; Eh!/Y quizas un día/Euskadi sera libre y tropical/sin militares, soberana o mejor.../nos haremos negros y vagos/tendran que cerrar hasta las cooperativas/excomulgados de todas partes/seremos libres para hacer cualquier pecado./En los txokos vascos el mejor plato/iguana de Bermeo al pil pil/pasaremos la tarde en largas siestas/porrusalda, ron whisky y hielo./Y los caseros plantaran/cocoteros en vez de pinos/los arrantzales se pasaran al contrabando/y a la pirateria/y para acabar el arbol de Gernika/se convertira/en una hermosa palmera/vaya pedrada!

**Yankee go home**

Queremos a nuestro pueblo/queremos un sol de libertad/ese nos hace sombra pero.../nuestro canto es alegre./Fuera yankee/vete a casa, yankee go home/vete de aqui, dejanos en paz/uera el yankee, seamos libres de una vez por todas./Vil yankee - he aqui nuestro grito/escucha - el pueblo es nuestro/y en su defensa - apostamos nuestras vidas/si alguien la ha de perder - que se pierda la tuya./Fuera yankee.../Unamonos - entre nosotros antes que nada/sometidos - no podemos vivir/en nuestra casa - dueños de nuestra vidas/si alguien la ha de perder - que se pierda la tuya./Fuera yankee.../Unamonos - entre nosotros antes que nada/sometidos - no podemos vivir/en nuestra casa - dueños de nuestra casa/y si fuera preciso - duro con la bestia./Te quiero mucho, pero no te puedo ver/fui al cielo y también alli andan los perros en pelotas/un general escondido, desde el tubo de un cañón/"Y estoy bien, de modo que id adelante"/luce el sol en California, en vacaciones/todos andamos mejor./Fuera yankee.../Ya viene patapalo, el perfido pirata,/y yo ya me doy.

**Infernuko atean**

Escucha estoy temblando delante de la puerta/tocando, totalmente oxidado de wisky/llamando, este es el pero castigo/las horas pasadas ¿una alucinación?/Poder recordar que el mundo esta todavía ahi,/ver chicas guapas, pensar que ando como cualquier otro,/pero ahora el infierno de nuevo, mi infierno de nuevo./¿Qué más te puedo decir? Estoy bien debajo de esta losa/que a veces pienso que es demasiado pesada/y que no puedo más /ya no tengo ni ganas de soñar/aqui estoy solo en el agujero/gritando, desde dentro del vacio/deseando cualquier lugar donde ocurra algo/que merezca la pena ser contado.

HERTZAINAK



## Larru beltzak

Itxaro Borda/Josu Zabala

Neguaren bihotzeko begirada zaurituak
kurutzatzen ditugu plaza desolatuetan
gerla garaien mehatxuak airean doaz
justiziaren larru
beltzak sardeskatuz
denboraren orratzak
plegatzen gabiltza
larru beltzak
josi asmoz.

Ez dago eskubiderik ahurretan hiltzen
denik gose ankerraren lautada hotzean
ogi beharraren premiak sabeletan doaz
justiziaren larru beltzak sardeskatuz

Plaza desolatuetan galdez daude denak
noiz ote diren beren haurrak itzuliko
baina treinak umezurtzez beterik doaz
justiziaren larru beltzak sardeskatuz
denboraren orratzak
plegatzen gabiltza
larru beltzak
josi asmoz.

## Ibili dabiltz

José Vicente Carrasco/Josu Zabala

Ibili dabiltz barrezka hizketan
mozkortzen dira beren ustetan
eta jostatzen dute batzuetan

Sentzudun dira bizitu arren
guztien mixeriz eskerrak ematen
nagusi bihoztunari

Duten ezjakintzan harro
susmati begira daude

Ametsaldia hausiko ote
ta hortan arrazoi badute

Aipatzen dizkiet atxilotuak
Zerbait berria nahiz sufrituz direnak
negar egitea ere eragotzia dutenak
eta sorbalda jasotzen dute

Horientzat zoro bat naiz
eta nera gudua zera da
lilluratzeko asmakeria.

Nere herra ta nere amorrua
gaztaroko gaitzak dira
Zer besterik izan daiteke?

Ekintza beldurgarriak
beroien etzaurretan

Gertatzen dira benetan
bai beste mundu batean

Etorkizun seguraz arduratuta
ta ezin dute astirik galdu ea
benetan aske ote direnez
agian hola hobe

Urka bihurra lepoan daukat
ta hoiek etxean geratu dira
putzura bultza nautenekin
irriz ari dira.
Urka bihurra lepoan daukat
ta hoiek etxean geratu dira
beroiek zer esan badutela
ardura ere ez zaiela.

## Une etengabeak

Igon Gari

Kontutan hasi zara
eta ez dizut entzuten
lanik ez dagoela
gauzak gero ta okerrago dituzula
eta soilik labunbatetan irtetzen zarela
telebistak, irratiak edo ta egunkariak
ez dutela betiko huskeria baizik adierazten
hitz egiten zabiltz baina nik ez dut entzuten.

Nere denbora lasaiagoa doa
ta une etengabea dakar

Alfer huts bat eginda nagoela esaten dit aitak
uzteko bizimodu txar ta txorakeria hauek
edadea badudala nire buruari aurre egiteko
ikus dezadala adibidez anaien jarrera
ez da ixiltzen!!! Baina nik ez diot entzuten
zeren nire denbora lasaiagoa doa
ta une etengabea dakar

Nigan pentsatzen dut batzuetan ere
nere helburuak amets batean bezala
errealizatzen dira
urdurik!!! Gaurko eguna azkena izango dela
ta hemendik aurrera zuzen joko dudala esanaz
baina entzun nazazu ondo zeren egiaren ordua
heldu da eta
egiaren ordua.

## Eutsi gogor

Karra Elejalde/Josu Zabala

Altxatu haiz betiko orduan leku berdinera
joateko berriz
autobusean ez dut ohiturazko aurpegia,
aurre egitera hoa inoiz ez bezala
betikoen kontra inoiz ez bezala,
betikoen kontra baina inoiz ez bezala

Buzo, kasko, musuzapiak aurpegian
sua ta kea eutsi langileria!!!
tuerkak gomazko piloten kontra

Lehen bokadilloa zeramaten poltsikoak,
orain askoz ere aztunagoak dituk
gasola behar duk, azkar hustu motor hori!!!
Barril atzean gogor ari dira oraindik
akabazak, tapa botilak, kabuendio!!! Zelan pasa
da hori!
Akabazak estalizak ongi.

Ez pentsa ezer, ordua duk eta ez duk ezer
behar, soilik suertea
jo! Joshe Mari apuntatu ongi, sua emaiok!
Rekonbertizak
sua amaiek! Rekonbertitzak

## Aitormena

Ez dira betiko garai onenak
azken finean gizaki hutsak gara.
Bakearen ostean dator ekaitza
udaberri berririk ez guretzat.
Denborak aurrera etengabian
ta orain ezin eutsi izan giñana
«rutinaren» morroiak bihurtu gara
laztana lehen baino lehen aska gaitezan.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta
Ohartu gabe heldu gara mugara
Mundua jausi zaigu gainera
Maitia lehen baino lehen aska gaitezan.

Ez dakigu non dagoen hoberena
Bila dezagun beste lekuetan.
Bai, zin dagizut ez dizudala inoiz
gezurrik esan eta
zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz
aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena
baina orain, maitia lehen baino lehen aska
gaitezan.

## Gaizki pentsatzen

Hator ba, neskatxa gauza bat esan nahi dinat
ez natorren lanean ala ikasten habilenetan
erabat askatua sentitzen naun gau ilunetan
une atsegina elkarrekin pasatzea nahi dinat soilik

Ez, benetan ez nagoela moskorrik
azkenaldian ez naun drogatzen ia.
Agian zeraren apur bat beharko ninuken...
ez pentsa gaizki.
Gaizki pentsatzen, ari naiz betiko lez pentsatzen
zuek beti zaudetela pentsatzen
gu beti ari garela gauza bera pentsatzen.
Gaizki pentsatzen.

Ez joan, ez ninake nik inola ere kalterik egin nahi.
Hator ba, une atsegina elkarrekin pasatzea nahi
dinat soilik
Ezetz ba, ez nagoela moskorrik, zergatik zaude
hain ixilik?
Agian zeraren apur bat beharko ginuken...

Ez pentsa gaizki.
Gaizki pentsatzen hasi naiz betiko lez pentsatzen
zuek beti zaudetela pentsatzen
gu beti ari garela gauza bera pentsaten.

## Miren Model «B»

Kanpai baten bortxaz deitzen du
txirrina jotzen hasten dun misioa
euskararen misiolaria; eskolegunetako modelo «b»
Garraxi egiten dunala, ixilik
horrela aginduz irakasten dun hizkuntza
hire misioa ondatuz, eskolegunetako modelo «b»
Eusko jaurlaritzaren peoia, noiz arte iraungo dun horrela?

Hik zer egiten dun lan hortan?
Bai zeharo zapuztuta hago
euskararen misiolaria, eskolegunetako modelo «b»

Eskolatik alde egiten dunala
bai asteburu guztietan, amatxorekin egoteko
asteburuetako kaka eredu
Eskolegunetan Jaurlaritzarekin, asteburuetan amakin
Jaurlaritza beharrezkoa dun eta ama ere ni baino inportanteagoa.

Eta zer gelditzen zait niri?
Zertarako haunat?
Hire bizitza zertarako?
Noiz izango naun laketgarri hirekin?
Noiz ligatuko dinat hirekin?
Noiz joko larrua hirekin?
Ezin izango dut.

Kaka Jaurlaritzari
Ezin izango dut egin
kaka amari
kaka, kaka, kaka,.
Miren, Miren, Miren modelo «b»